

ESKU - IDAZKIAK

XX GORAPEN - ABESTIA

³ Eskerrak emoten dautsudaz, ene Jaungoikoa,
zure izaki gaiso onetan,
buztiñezko gizonkil zirtzil onetan!,
miragarriak egin dozuzalako.
Aregan zeure besoaren aal-izatea egertzen dozu,
geiago ta geiago beti.

⁴ Nor naz ni zure ezkutua iragarten asi zakidazan?

Zeure egintzak ulertzea emon daustazu.

⁵ Nire agoan gorapenak jarten dozuz,
nire miiñean zeure ezpanetako gorespenak.
Pozez abestu nai dot zure aal-izatea,
zure errukia egun guztian ausnartzea.

⁶ Zeure izena bedeinkatuko dot,
zeure aundi-izateak azalduko dautsedaz Adan'en semeai.

⁷ Nire arimeak zeure ontasun ugaria atsegin dau.
Nik ba-dakit zure agoak beti berba bera diñoana.
Zure eskuak zuzentasun bera [egiten dau]

⁸ eta zure burutapena ezagutzen dan guztira [zabaltzen da] Zure sendotasunean batzen da dan guztiaren indarra.

Zure aintzak zeure sumiñean egiten dau dizdiz,
zigorrek diran zure auzietan,

⁹ [baita] zeure ontasunean be.
zure parkatze ugarietan.

Zure errukia zeure maitasunaren seme guztienzat
[,||]. Orregaitik irakasten dautsezuz zure ezkutua,
¹⁰ orrexegaitik egiten dozuz jakintsu sure asmo
miragarrietan.

Zure aintza illundu ez daiten,
garbitu egiten dozu gizona beronen agindu-austea-kaitik.

Santutu daiten,

¹¹ kendu egiten dozu aregandik iguingarri dan guztia.

Edozein galdukeri, edozein egitada errudun,
zintzokakaz alkartu daiten

¹² eta santuen zori berbera izan dagian.

Jaso egiten dozu autsetik artxo ilkorra,
onaren eta txarraren espirituaren arteko gorabee-rean sendotzen dozula.

Zeu ezagutzeko argitzen dozu,

¹³ gudarozte betikoagaz alkartuta Zeugana eldu daiten,

beti barriztutako espiritu argituagaz (alkartuta),

¹⁴ beti irauten dabenak, bazkunako gozotasunaz jakitun dagozanak.

XXI DORAPEN - ABESTIA

¹⁵ Eskerrak emoten dautsudaz, ene Jainkoa,
Goratu egiten zaitut, ene Arkaitz ori,
zure jardun zoragarriagaitik.

¹⁶ Izan be, zeure biziaren ezkutua
ezaguerazo zeustan.

¹⁷ Zeure miragarriak agertu daustazuz.

Ni begira nagokie,
[atsegin dot] zure naierea.

¹⁸ Ba-dakit zuzentasuna zeurea dana
eta salbamena zeure biozperatasunean dagoana,
[zure sumiñean] ondapena,
zure errukia urritu bagarik.

¹⁹ Nigandik dolu ta samintasun-iturria sortu zan.
Ez yatan oiñazerik Parkatu.

²⁰ Oil, neugan ezagutu aal izan dot
zenbat makurtzen dan gizona ilkortasunera,
[autsetara], pekatutara, atsekabera,

²¹ erruaren larritasunera.
pentzakera au, zorrotz antzean,
nigan azurretaraiño sartzen da.

Miñaren oiñazean artzen naz.

²² Doluzko erosta-zitareak jotzen diardu,

illeta-abestiak, samintasun-erostak,
gaiztakeria ezereztu arte,
edozein zauri ta geiso garbitu arte.

²³ Orduan, poz-zitarazko soiñua asiko dot,
atsegin-zitarea, gorapenari dagokion txilibitua.

²⁴ Nok esan aal izango dauz
izaki guztien artean isuritako zure miragarriak [...?]

²⁵ Ago guztiak betiko goratu zagiezala,
bedeinkatu zagiezala zeure doaiakitik
guztiak batera soiñu berean.

²⁶ Poz-bitsetan soillik egon zaitezala,
ez da geiago izango negarrik, ez negar-malkorik.
Amaia gaiztakeriari. Zure egiak dizdiz egingo dau.

²⁷ Aintza azkenbagearentzat bakea betikoa izango da.

²⁸ Bedeinkatua Zeu, zure gozotasun ugaria zeazteko

zure morroi oni adimena, ezeguerea ta zure miragarriak bereiztea
emoten dautsazuz-ta.